

GUREAN BAI-ELKARTEAK Hitzarmena: Elkarte-entitateak euskalduntzeko konpromisoa

1996ko urtarrilean Elgoibarko 51 elkarte eta entitatek GUREAN BAI esan zuten.

Gurean Bai elkarteetako funtzionamendua, batez ere, euskaraz izan zedin; Gurean Bai, antolatzen zituzten jardueretan euskara nagusi izateko; Gurean Bai, azken batean, elkarte eta erakundeak euskalduntzeko.

59 elkarteri aurkeztu zitzaien hitzarmena eta 51k sinatu zuten.

Elkarte bakoitzak bere konpromiso-maila hartu zuen, aurkeztutako bi hitzarmenetatik ondoen zetorkiena, hain zuzen ere.

Elkarte edo entitate mota asko zeuden: kultur eta kirol-elkarteak; ikastetxeak; Udalaren menpeko erakundeak; ...

Abel Irizarrek jardun zuen hasieratik proiektuko teknikarilanean, eta Segimendu Batzordea zeukan hitzarmenaren segimendua eta zaintza egiteko.

Egindako lan batzuk aipatzearren, hauek zerrendatuko ditugu:

- Entitateen hizkuntza-egoera aztertu eta hitzarmen espezifikokoak prestatzea eta sinatzea.
- Konpromisoak betetzeko laguntza eta zerbitzuak eskaintzea.
- Kalera begirako ekintzetan euskararen erabilera indartzea eta ohiturak finkatzea (kartelak, megafonia,...).
- Euskararen ezagutza indartzeko ikastaro bereziak antolatzea, entitateetako partaideak euskaltegiara bideratzea.

Emaitzei dagokienez, berriz, lortu hauek azpimarratuko ditugu:

- Irudi linguistikoa nahiko txukun lagatzea lortu zen.
- Dokumentazio aldetik ere, elkarteko bazkideei edo kanpora bidaltzen ziren idatzirik inportanteak euskaraz edo ele bietara bidaltzen ziren.
- Ezagutza-mailan, pare bat entitateetan eragin handia izan zuen planak, eta momentu batean 24 ikasle izan ziren euskara ikasten euskaltegietan, eta 20 bat, ikastaro berezietan.
- Kalera begira egiten zituzten ekintza gehienetan euskararen presentzia ziurtatzea lortu zen.
- Udalaren menpeko erakundeetan, oro har, emaitza onak lortu ziren eta 7 urtean bi entitate inportantetako hizkuntza-egoerak buelta eman zuen (Musika Eskola eta Udal Kirol Patronatua).
- Kirolean, orokorrean, entrenatzaileen eta kirolarien arteko harremanetan, oraindik gaztelania da nagusi. Arlo honetan lan handia dago egiteko.

*59 elkarteri aurkeztu
zitzaien hitzarmena, eta 51k
esan zuten "gurean bai".*

Gurean Bai-Elkarteak hitzarmen-proiektua 2003ko apirilean eten genuen.